

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure aplikazioa aurrera atera dadin, beharrezkoak izango diren hainbat jarduera egin beharko ditugu. Honako hau da gure proiektuak funtzionatzeko funtsezkoak diren jardueren zerrenda:

- **Beharrezko materialak erosi eta programatu:** Gure aplikazioa programatzeko eta diseinatzeko, material jakin batzuk beharko ditugu, eta horiek bi ordenagailu eta Quixy izeneko aplikazio bat programatzeko beharrezko softwarea dira .
- **Aplikazioa diseinatzea:** erakargarria, erraza eta intuitiboa den aplikazioa diseinatu eta martxan jartzea
- **Establezimenduak lortzea:** Gure proiektuaren funtsezko zati bat establezimenduak izango dira. Horiek ez dira gure app-aren osagaiak bakarrik izango, gure sarreren funtsezko zati bat ere izango dira iragarkien bidez. Gure helburuaren arabera establezimendu-sare bat lortzeko, emakumeen segurtasuna eta erosotasuna lehenesten duten establezimenduak bilatuko ditugu, eta haiekin harremanetan jarriko gara.
- **Banaketa digitaleko plataformak:** Beharrezkoa da gure aplikazioa banaketa digitaleko plataformetan sartuta egotea, kontsumitzaileek deskargatu ahal izan dezaten. Horretarako, app store eta google play aplikazioetan sartuko dugu gure aplikazioa.
- **Sare sozialen bidezko komunikazioa:** Gure aplikazioa bidaiatzen daben 40 urtetik beherako emakumeei zuzenduta dagoela kontuan hartuta, uste dugu haiekin harremanetan jartzeko eta ezagutzera emateko modurik onenetako bat sare sozialen bidez izango dela. Gure kontuak sortuko ditugu sare sozial ezagunenetan (Tiktok, Instagram eta Twitter), haiekin zuzenean harremanetan jarri ahal izateko.
- **Influencer-ekin lankidetzak:** Gainera, gure aplikazioa ezagutarazi ahal izateko, influencer-ei ordainduko diegu, susta gaitzaten. Gure app-a sustatzea gustatuko litzaigukeen influencer mota honako hau da: emakumea, gaztea(40 urtetik berakoa), bidaiari eta turismoari buruzko edukinak egiten dutenak. Izan ere, influencer mota horren jarraitzaile gehienak gure app-aren bezeroen segmentazioagaz bat egiten dau.
- **Beharrezko finantzaketa lortzea:** Dirua proiektu bakoitzaren funtsezko zati bat da, eta, horregatik, finantzaketa lortzea oso garrantzitsua da. Gure finantziaketa hainbat iturritatik etorriko da. Horien artean daude bankuaren 60.000 €ko mailegua eta lau bazkideok enpresa sortzean egingo ditugun ekarpenak, bakoitza 5.000 €-koa. Berdintasun ministerioari 1.200 €-ko dirulaguntza ere eskatuko diogu. Azkenik, gure aplikazioan babesten duten establezimenduen bidez lortuko dugu dirua.
- **Aplikazioaren erabiltzaileak erregistratzea:** bezeroek gure aplikazioa deskargatu ondoren, erregistratu eta erabiltzaile propioa sortu beharko dute gure aplikazioa erabili ahal izateko. Erabiltzaile masa kritiko egokia lortzea ezin bestekoa da.
- **Establezimenduen balorazioak:** Gure kontsumitzaileen balorazioak oso garrantzitsuak dira gure proiektuarentzat, aipatu dugun bezala gure lehentasun nagusia emakumeen segurtasuna baita. Beraz, gure aplikazioan, emakumeek establezimenduei buruzko balorazioak uzteko aukera izango dute, eta, gainera, balorazio horiek asko eskertuko ditugu.